

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2252

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2014rako deialdia, Lanbideko Administrazio Kontseiluaren Akordioz onartua. Agindu horretan arautzen dira laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2014ko maiatzaren 15eko saioko Akordioaren bidez onartu du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia. Agindu horretan arautzen dira laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak, eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko p) idatz-zatiaren arabera, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio hura argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2014rako deialdia argitaratzea, Lanbideko Administrazio Kontseiluaren Akordioz onartua 2014ko maiatzaren 15eko saioan. Agindu horretan arautzen dira laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak, eta Ebazpen honen eranskinean dator.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Akordioak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Akordioaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUAREN 2009KO MAIATZAREN 4KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN 2014RAKO DEIALDIA, LANERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO ETA MANTENTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA.

2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez (2009ko maiatzaren 26ko EHAA, 98 zenbakikoa) arautzen dira Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko ematen dituen laguntzak. Horien xedea, enpresa horiei laguntza ematea da, haien ezaugarri eta beharrei egokituta. Horren baitan, diru-laguntzak aurreikusten dira laneratzeko enpresak sortzea sustatzen duten erakundeentzat, bai eta laneratzeko enpresentzat ere, mantendu ahal izan daitezen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.5 artikulua ezartzen duenez, ekonomia-ekitaldi bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegorako aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean, diru-laguntzak emateko arauak eguneratu nahiz berrikusiko dira, edo, behar izanez gero, arau berriak ezarriko dira, eta, indarraldirik zehaztu ez zitzaizen diru-laguntzetarako deia egingo da.

Era horretan, 2009ko maiatzaren 4ko aipatutako Aginduaren 17. artikulua berariaz xedatzen du urtero egingo dela bertan aurreikusitako laguntzen deialdia, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak bertan adierazten du aurrekontua zenbatekoa den eta eskabideak aurkezteko epea. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko 8. artikuluan xedatzen denez, enpleguari buruzko eta lanpostura egokitzeari buruzko politika Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumena da.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguko, enplegurako prestakuntzako eta autoenpleguko eta enpresen sorkuntzako programak kudeatzeko eskumena, indarrean dagoen urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarrita dagoenez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2011ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zenez geroztik, bere gain hartu du laneko legedia betearazteko arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzeko ardura, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan; eta bere gain hartu du, halaber, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak enplegu-politika aktiboaren arloan betetzen zituen eginkizunen kudeaketa. Eginkizun horien artean dago 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntza-programa kudeatzea.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartu zen Lanbideko Estatueta 3. artikuluko b) idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriaz, enpleguko, enplegu-prestakuntzarako, autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programen barruan sartzen da diru-laguntzetarako deialdiak onartzea ere, eta erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluari dagokio funtzio hori, halaxe baitago ezarria aipatu Estatueta 7. artikuluko f) idatz-zatian.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legea onartu izanak zilegi egiten du deialdia egitea.

Era berean, laguntzak kudeatzen dituen organoa aldatu denez, eta publizitatea eta segurtasun juridikoa errespetatze aldera, komenigarria da laguntzak jaso ditzaketenei jakinaraztea

diru-laguntzak emateko prozeduraren xehetasun batzuk, bai eta 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitakoak ez bezalakoak diren betebeharrak ere.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hala proposatuta, erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15eko saioan onartu du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia. Agindu horretan arautzen dira laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak, baldintza hauetan:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea lau hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Diru-baliabideak.

Deialdi honen helburu diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak honako hauek izango dira: guztira 8.650.000 euro; eurentarik, 1.850.000 euro 2014ko ordainketa-kredituari dagozkio, 2.725.000 euro 2015eko konpromisozko aurrekontuari, 2.725.000 euro 2016ko konpromisozko aurrekontuari eta 1.350.000 euro 2017ko konpromisozko aurrekontuari, 3211 programaren kargura – Enplegua, 41. Sekzioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

Baliabide horien bidez estaliko dira 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzak, bertako II. Kapituluaren 7. artikuluan eta 11. artikuluan a) idatz-zatian aurreikusitakoak izan ezik.

2014ko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatu zenbatekoa, edo, indarreko legeriaz bat aurrekontu-aldaketak onartuz gero, zenbateko hori eguneratzeetik ateratzen dena. Eguneratzerik balego, horren berri eman beharko litzateke. 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututako laguntzak estaltzeko diru-baliabideei buruzko gainerako aurreikuspenak datoz bertako 23. artikuluan.

Hirugarrena.– Diru-laguntzak jasotzeko eta emateko baldintzak.

Laguntza horiek jasotzeko eta emateko baldintzak 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan azaltzen dira.

Laugarrena.– Laguntzen prozedura, tramitazioa eta ebazpena, eta onuradunen obligazioak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu duenez laguntzak kudeatzea, era honetan eragiten dio 2009ko maiatzaren 4ko Aginduko erregulazioari:

1.– Diru-laguntzak lortzeko eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentralean (Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz) eta Lanbideko lurralde-bulegoetan aurkeztu beharko dira, eranskinean agertzen den eta <http://www.lanbide.net> webgunean eskura egongo den eredu ofizialaren bidez.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzeko Aktibatze Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta Lanbide erakunde autonomoko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

3.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

4.– Laguntza hauek estaltzeko aurrekontua eguneratu edo agortuko balitz, horren berri emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez, eta EHAAan argitaratuko da.

5.– Erakunde onuradunek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jardueren izaera edo helburua aldatzen duen gorabehera oro; eta, bestalde, aipatu jardueren egiaztapen, ikuskapen, segimendu eta kontrolari dagokionez, erakunde autonomo horrekin kolaboratu beharko dute.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesak jasotzen duela adierazi beharko du berriaz erakunde onuradunak, diru-laguntza jasotzen duten eta horien dibulgazioa, hedatzea, edo, hala badagokio, argitaratzea dakarten jarduera guztietan.

2014ko maiatzaren 23a, ostirala

ERANSKINA

LANERATZEKO ENPRESAK MANTENTZEKO LAGUNTZEN ESKAERA
(Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren 5. artikulua eta hurrengoak)

LANERATZEKO ENPRESA ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK			
Enpresa eskatzailearen izena:		IFK:	L.E.ren erregistro-zk.
			Inskripzio-data
Jarduera:		EJSN:	
Helbide soziala:			
Herria:		Posta-kodea:	Lurralde Historikoa
Telefonoa	Faxa	Posta elektronikoa	
Enpresako langile-kopurua, guztira:		Laneratzeko bidean dagoen langile-kopurua:	
G.Z.ko inskripzio-zk.:			
<input type="checkbox"/> Merkataritza-sozietatea			
<input type="checkbox"/> Ekonomia sozialeko sozietatea			

LANTOKIA (helbide sozialaren berdina ez bada)			
Helbidea:			
Herria:		Posta-kodea:	Lurralde Historikoa
Banketxea		Kontu-zenbakia	

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA (eskuineko zutabeen X batez marka ezazu eskatutako laguntza) (1)	
Laneratzeko bidean dauden pertsonen lanpostuetarako (8. art.)	
Produkzioan laguntzeko teknikarien lanpostuetarako (9. art.)	
Laneratzen laguntzeko teknikari espezializatuen lanpostuetarako (10. art.)	
Laguntza teknikorako, kontabilitateko eta kudeaketako ikuskaritzarako (11 b art.)	
Prestakuntzarako (12. art.)	

(1) Eskatutako laguntza adierazi ondoren, bete itzazu orri hauetatik dagozkionak.

OHARRA:

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez jakinarazten du Eusko Jaurlaritzaren jabetzako fitxategi automatizatuetan sartuko direla laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak.

Nahi izanez gero, Legean aurreikusitako eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu; horretarako, idatzi bat bidali beharko duzu Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuen zerbitzu nagusietako Laneratzeko Aktibatze Zuzendaritzara (Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

2014ko maiatzaren 23a, ostirala

..... jauna/andreak, NAN duenak,
 laneratzeko enpresako ordezkariak,
 euroko laguntza eskatzen du enpresa hori mantentzeko gastuetarako, eta izenpetzen du honako:

ERANTZUKIZUN-DEKLARAZIOA

(x baten bidez adierazi dagokiona)

Lehenena.

- Ez dut beste diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso helburu bererako, inongo Administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutik.
- Helburu bererako beste laguntza bat eskatu dut-n, eta eskabide hori:
- Tramitazioan dago.
 - Baztertua izan da.

Bigarrenena.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzek eragindako itzultzeko edo zigortzeko prozeduren eraginpean ez nago.

Hirugarrenena.

- Ez didate ezarri diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor-arloko edo administrazio-arloko zigorrik, eta ez nago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean.

Laugarrenena.

- Ez nago administrazio- edo zigor-arloan zehatuta sexua dela-eta diskriminatzeagatik, eta ez nago zehatuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki euskal administrazio publikoen laguntza eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin.

Bosgarrenena.

- Eskabide honetan emandako datuak benetakoak dira.

NORTASUN-DATUAK ETA ZERGETAKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRAK MODU ELEKTRONIKOAN EGIAZTATZEKO BAIMENA (markatu dagokiona):

Bai Ez

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari baimena ematen diot nire nortasun-datuak eta zergetako eta Gizarte Segurantzako betebeharrak modu elektronikokoan egiaztatzeko. (Oharra: baimenik eman ezean, nortasun-agiriaren, NAN/AIZren kopia eta ordainketa eguneratuen ziurtagiriak aurkeztu behar dira)

.....(e)n, 20...(e)koren(e)an

Sinadura

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTEKO AGIRIAK

Oro har, diru-laguntza guztietan:

- 1.– Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.
- 2.– Urteko kontuak eta ekitaldi bakoitzaren amaierako kudeaketa-txostena.
- 3.– Hastera doan urterako jarduera-plana, laguntza eskatu den jarduerekin lotuta.
- 4.– Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko Zuzendaritza Probintzialaren edo –sozietate kooperatiboen kasuan– dena delako erakundearen ziurtagiria, eguneratua eta bi aletan, erakunde eskatzaileak zergetak eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena. Eskabidea aurkeztearen ondorioetarako soilik, ziurtagiri horren ordez eman daiteke hura errekeritu izanaren idatzia, behar bezala zigilatua. Erakunde batek ordainketak egoera erregularrean dituela esango da zorraren atzerapena lortu eta hura agiri bidez egiaztatzen badu.

***Ziurtagiri horiek ez dira aurkeztu beharko modu elektronikoa egiaztatzeko baimena eman bada aurreko orrian.

- 5.– Izenpetutako laneratze-hitzarmenen kopia.

Laneratze bidean dauden pertsonentzako lanpostuak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzetan:

- 6.– Sor litekeen lanpostu-kopuruaren aurreikuspena, eta sorrera hori denboran zehar nola banatzea espero den.

Produkzioan laguntzeko teknikarien lanpostuak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzetan:

- 7.– Ustezko lanpostu-kopurua.

Laneratzen laguntzeko teknikari espezializatuen lanpostuak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzetan:

- 8.– Ustezko lanpostu-kopurua.

Laguntza teknikorako diru-laguntzetan:

- 9.– Kontabilitateko eta kudeaketako ikuskaritzak egiteko diru-laguntzetan, ikuskaritza-proiektua.

Prestakuntza-ikastaroetarako diru-laguntzetan:

- 10.– Enpresako prestakuntza-plana. Bertan adieraziko dira, gutxienez, ikastaroen zerrenda, ikastaroak jaso litzaketen ikasleen kopurua eta ikastaroak ematen dituzten erakundeen zerrenda.

Aipatutako agiriez gain, arautegia betetzen dela egiaztatzeko eskatzen diren guztiak aurkeztu beharko dira.

2014ko maiatzaren 23a, ostirala

ESKATUTAKO LAGUNTZA _____ EURO

2.- PRODUKZIOAN LAGUNTZEKO TEKNIKARIENTZAKO LANPOSTUAK SORTZEKO ETA MANTENTZEKO DIRU-LAGUNTZAK (9. art.)

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		N.A.N.:
Erakunde kontratzailea:	<input type="checkbox"/> Laneratzeko enpresa <input type="checkbox"/> Sustatzailea	
Kontratu mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %-a:	Ustezko kostua:	

Kontratutako teknikariaren izen-abizenak:		N.A.N.:
Erakunde kontratzailea:	<input type="checkbox"/> Laneratzeko enpresa <input type="checkbox"/> Sustatzailea	
Kontratu mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %-a:	Ustezko kostua:	

ESKATUTAKO LAGUNTZA _____ EURO

2014ko maiatzaren 23a, ostirala

3.- LANERATZEN LAGUNTZEKO EKINTZETAN ESPEZIALIZATUTAKO TEKNIKARIENTZAKO LANPOSTUAK
SORTZEKO ETA MANTENTZEKO DIRU-LAGUNTZAK (10. art.)

		N.A.N.:
Erakunde kontratatzailea:	<input type="checkbox"/> Laneratzeko enpresa <input type="checkbox"/> Sustatzailea	
Kontratu mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %-a:	Ustezko kostua:	

Kontratatutako teknikariaren izen-abizenak:		N.A.N.:
Erakunde kontratatzailea:	<input type="checkbox"/> Laneratzeko enpresa <input type="checkbox"/> Sustatzailea	
Kontratu mota:		
Kontratuaren iraupena	Hasiera:	Amaiera:
Egiaztatutako prestakuntza eta esperientzia:		
Lanaldiaren %-a:	Ustezko kostua:	

ESKATUTAKO LAGUNTZA _____ EURO

2014ko maiatzaren 23a, ostirala

4.- LAGUNTZA TEKNIKORAKO DIRU-LAGUNTZAK (11. art.)

KONTABILITATEKO ETA KUDEAKETAKO IKUSKARITZA

Titulua / izena:		
Ikuskaritzaren helburua:		
Hasiera-data:	Amaiera-data:	
Erakunde edo pertsona ikuskatzailea:		
Helbidea:	Herria:	Posta-kodea:
Probintzia:	Telefonoa:	I.F.K. / I.F.Z.
Kostua, aurrekontuaren arabera (BEZik gabe)	ESKATUTAKO ZENBATEKOA:	euro

2014ko maiatzaren 23a, ostirala

5.- PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK (12. art.)

PRESTAKUNTZA-IKASTAROA		
Ikastaroaren hasiera-data:		Ikastaroaren amaiera-data:
Ikastaroa egiten duten pertsonak:		
Ikastaroa ematen duen erakundea:		
Ikastaroa egingo den lekua:	Herria:	Helbidea:
Probintzia:	Telefonoa:	IFK / IFZ:
Kostua, aurrekontuaren arabera (BEZik gabe):		ESKATUTAKO ZENBATEKOA: euro

IKASTOROKO JOAN-ETORRIETARAKO DIETAK	
Autopistako gastuak:	
Garraiobidea erabiltzearen gastuak:	
ESKATUTAKO ZENBATEKOA: euro	

PRESTAKUNTZA-IKASTAROA		
Ikastaroaren hasiera-data:		Ikastaroaren amaiera-data:
Ikastaroa egiten duten pertsonak		
Ikastaroa ematen duen erakundea:		
Ikastaroa egingo den lekua:	Herria:	Helbidea:
Probintzia:	Telefonoa:	I.F.K. / I.F.Z.:
Kostua, aurrekontuaren arabera (BEZik gabe):		ESKATUTAKO ZENBATEKOA: euro

IKASTOROKO JOAN-ETORRIETARAKO DIETAK	
Autopistako gastuak:	
Garraiobidea erabiltzearen gastuak:	
ESKATUTAKO ZENBATEKOA: euro	